*Erref.*- *YLL/Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko burua*

*Proposamena: Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko Burutza*

**KUDEATZAILE JAUNAREN 2014KO IRAILAREN 8KO EBAZPENA. HONEN BIDEZ, EPE BERRI BAT IREKITZEA XEDATZEN DA, GUFEN LANGILEAK ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO LAN-POLTSEN OSAERARI DAGOKION AUKERAKETA-ESKUBIDEA ERABILTZEKO.**

**Kudeatzaile jauna:**

GUFEko Gobernu Batzordeak, 2008ko urriaren 31ko bileran, langileak aldi baterako kontratatzeko lan-poltsak kudeatzeko irizpideak onartu zituen (5/08 akta). Irizpide horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 247. zenbakian, 2008ko abenduaren 24an (asteazkena). Horrez gainera, GUFEren iragarki-oholean eta web orrian ere jarri ziren, baita Bizkaiko Lurralde Historikoan zabalkunderik handiena duten egunkarietan ere, laburtuta, iragarki gisa.

Erabaki horrek beren-beregiko ahalmena eman zion kudeatzaile jaunari erabakitakoa betearazteko, eta hark berriro ere xedatu zuen aldi baterako lan-poltsetan kategoriaren arabera aukeratzeko betebeharra, hartan jasotako eta bakoitzari dagozkion epean eta eran, BAOren zenbaki hauetan argitaratutako iragarkien bidez: 2009ko otsailaren 13ko BAOren 30. zk (ostirala), 2010eko apirilaren 9ko BAOren 65. zk. (ostirala), 2012ko apirilaren 20ko BAOren 76. zk. (ostirala) eta 2012ko azaroaren 30eko BAOren 230. zk. (ostirala). Azken hori, egun indarrean dagoen zonifikazio-prozesuari buruzkoa da.

Ondorioz **epe berri bat ezarri nahi da, interesdunek aukeratzeko edo hasierakoa aldatzeko eskubidea erabil dezaten.** Eta interesdunek eskubide hori erabiliko ez balute, hasieran beren-beregi adierazi izan zuten aukerari eutsi egin diotela ulertuko litzateke, betiere dagokion zonaren balioa indarrean mantenduz gero. Hau da, bai sortu berriko zonak bai antolaketa-arrazoiak direla-eta aurreko zonifikazioan ez zegoen beste zentro-elkarketa dela-eta sortu den zonak zonifikatu beharreko

*Ref.*- *YLL/Jefa de Área de Selección y Provisión*

*Propuesta: Jefatura Departamento de Dirección de Personas*

**RESOLUCION DEL SR. GERENTE DE 8 DE SEPTIEMBRE DE 2014, POR LA QUE SE DISPONE LA APERTURA DE NUEVO PLAZO PARA EL EJERCICIO DEL DERECHO DE OPCION RELATIVO A LA COMPOSICION DE LAS BOLSAS DE TRABAJO TEMPORAL DEL IFAS.**

**Señor Gerente:**

La Junta de Gobierno del IFAS acordó con fecha 31 de octubre de 2008, Acta número 5/08, la aprobación de los Criterios de Gestión de Bolsas de Trabajo Temporal que fueron objeto de publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, BOB número 247, miércoles, de 24 de diciembre de 2008, Tablón de Anuncios y Página Web del IFAS, así como extractos en forma de anuncio en los periódicos de mayor difusión del Territorio Histórico de Bizkaia.

Aquel Acuerdo habilitaba expresamente al Sr. Gerente para su ejecución, quien así, vino a disponer, nuevamente y entre otros, mediante anuncio publicado en el BOB núm. 30, viernes, de 13 de febrero de 2009, BOB núm. 65, viernes, 9 de abril de 2010, BOB núm. 76, viernes, 20 de abril de 2012, y BOB núm 230, viernes, 30 de noviembre de 2012, esta última correspondiente al proceso de zonificación actualmente en vigor, la obligación de ejercitar la opción por categoría respecto de las bolsas de trabajo temporal que pudiera corresponder, en el plazo y forma allí contenidos.

En consecuencia **se pretende establecer la apertura de un nuevo plazo para que las personas interesadas puedan ejercer su derecho de opción o modificar el inicial.** Para el supuesto de que así no se hiciera, se mantendrá la opción inicialmente ejercida por las personas interesadas que lo hubieran manifestado entonces de forma expresa siempre que se mantenga la vigencia de la zona correspondiente. Es decir, que tanto en las zonas de nueva creación, como aquellas otras en las que razones organizativas hayan producido una

zentro berriak izango dira zentro horietan lan egin nahi dutenentzat.

reagrupación de Centros distinta de la existente en la anterior zonificación, serán considerados como nuevos centros a zonificar por aquellas personas interesadas en trabajar en los mismos.

Bestetik, orduan hautatu ez zuten eta orain ere hautatzen ez duten pertsonei dagokienez, horien eskubidea ez da galduko, baina mugatuta geratuko da eta aukera orokorreko poltsa bat osatuko dute, hutsik geratu direlako sor daitezkeen bete beharreko plazetarako bakarrik izango dena; eta hori guztia Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko burutzak zehaztuko duen eran.

Respecto de aquellas otras personas que ni optaron entonces ni lo hagan ahora se entenderá que su derecho, si bien no decae, se verá limitado, eso sí, a su integración en una Bolsa de opción general para los eventuales supuestos de cobertura de vacante, exclusivamente, y ello en la forma que determine la Jefatura del Departamento de Dirección de Personas.

Aurreko guztiaren berri eman zaie erakundean ordezkaritza duten sindikatuei, 2014ko ekainaren 13ko komunikazioaren bidez.

De cuanto antecede se ha dado traslado a las Centrales Sindicales con representación en el Instituto mediante comunicación de fecha 13 de junio de 2014.

Edonola ere, lan-poltsan sartutako pertsona guztiek bakoitzari dagokion lanpostua betetzeko baldintza guztiak bete behar dituzte kontratatzen diren egunean.

En todo caso, cualesquiera de las personas que integran las bolsas deberán satisfacer a la fecha de contratación la totalidad de los requisitos de desempeño del puesto de que se trate.

Gai hau ebazteko eskumena GUFEko kudeatzaile jaunari dagokio, horretarako ahalmena eman baitzitzaion goian aipatutako gaitasun-ebazpenean eta erakunde horren Estatutuak aldarazteari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauko 9. artikuluan.

La competencia para conocer de este asunto le corresponde al Sr. Gerente del IFAS en virtud de lo dispuesto en la precitada habilitación y en el artículo 9 de la Norma Foral 4/2001, de 30 de mayo, de modificación de los Estatutos que rigen dicho Instituto.

Beraz, hau sinatzen dutenak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

En consecuencia, quienes suscriben someten a su consideración para su adopción la siguiente propuesta de

**EBAZPENA**

***Lehenengoa***.- **2014ko irailaren 15etik urriaren 3ra** arteko epe berria irekitzea, biak barne, GUFEko lan-poltsak osatzen dituzten pertsonek lanerako zonaldea aukeratzeko edo aurretik zehaztutakoa aldatzeko eskubidea erabil dezaten; horretarako, **GUFEren web orrialdean dagoen eskabidea erabiliko da, on-linekoa**. Eta interesdunek eskubide hori erabiliko ez balute, hasieran beren-beregi adierazi izan zuten aukerari eutsi egin diotela ulertuko litzateke, betiere dagokion zonaren balioa indarrean mantenduz gero.

**RESOLUCION**

***Primero***.- Disponer la apertura de nuevo plazo desde el día **15 de septiembre hasta el 3 de octubre de 2014**, ambos inclusive, a fin de que las personas integrantes de las Bolsas de Trabajo del IFAS puedan ejercer su derecho de opción de zona de trabajo o modificar el señalado con anterioridad, y ello a través de la **solicitud disponible en la página web del IFAS via on line.** Para el supuesto de que así no se hiciera, se mantendrá la opción inicialmente ejercida por las personas interesadas que ya lo hubieran manifestado de forma expresa, siempre que se mantenga la vigencia de la zona correspondiente.

Hau da, bai sortu berriko zonak bai antolaketa-arrazoiak direla-eta aurreko zonifikazioan ez zegoen beste zentro-elkarketa dela-eta sortu den zonak zonifikatu beharreko zentro berriak izango dira zentro horietan lan egin nahi dutenentzat.

Es decir, que tanto en las zonas de nueva creación, como aquellas otras en las que razones organizativas hayan producido una reagrupación de Centros distinta de la existente en la anterior zonificación, serán considerados como nuevos centros a zonificar por aquellas personas interesadas en trabajar en los mismos.

Bestetik, orduan hautatu ez zuten eta orain ere hautatzen ez duten pertsonei dagokienez, horien eskubidea ez da galduko, baina mugatuta geratuko da, hau da, pertsona horiek aukera orokorreko poltsa bat osatuko dute, eta soilik deituko zaie hutsik geratu diren lanpostuak betetzeko.

Respecto de aquellas otras personas que ni optaron entonces ni lo hagan ahora, su derecho que no decae, se verá limitado, eso sí, a su integración en una Bolsa denominada de opción general y que lo será, exclusivamente, para los eventuales supuestos de cobertura de vacante.

***Bigarrena***.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, GUFEren iragarki-oholean eta web orrialdean argitaratzea, baita lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan ere.

***Segundo***.- Publicar la presente Resolución en el Boletin Oficial de Bizkaia, Tablón de Anuncios y Página Web del IFAS, así como en los periódicos de mayor difusión del Territorio.

***Hirugarrena***.- Ebazpen honen berri ematea Zerbitzu Orokorren Departamentuko Burutzari, Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko Burutzari, zentroetako zuzendaritzei eta GUFEn ordezkaritza duten Langileen Batzordeei.

***Tercero***.- Comunicar la presente Resolución a la Jefatura de Departamento de Servicios Generales, a la Jefatura de Departamento de Organización y Mejora, a las direcciones de los centros y a las Centrales Sindicales con representación en el IFAS.

Bilbon, 2014ko irailaren 8an

En Bilbao, a 8 de septiembre de 2014.

*AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO BURUA* / JEFA DE AREA DE SELECCION Y PROVISION

Sin./Fdo.: Mª Yolanda Llama López

*PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENTUKO BURUA* / JEFA DE DEPARTAMENTO DE DIRECCION DE PERSONAS

Sin./Fdo.: Nerea Urien Azpitarte

*GUFEko kudeatzailearen 2014ko irailaren 8ko EBAZPENA*/

RESOLUCION de fecha 8 de septiembre de 2014 del Sr. Gerente del IFAS

*Aurreko proposamena ikusi ondoren, osorik onartzen dut. Aurrekoa bete bedi.*/

Vista la anterior propuesta se acepta en su integridad. Cumpliméntese.

Sin./Fdo.: Jon Etxebarria Orue